

(!) Oharra:

jabego intelektualaren inguruko legediak irudien erabilera galerazten digu.

Hori dela eta, dokumentu honek ilustraziorik ez darama.

Irudiak ikusteko, ikur grisaren gainean klikatu.

DISEINU GRAFIKOA

PUBLIZITATEAN

03. KONPOSIZIOA

Imagina dezagun elementu grafikoak ikus-lengoiaren "hitzak" direla. Hitz horiek konbinatuz "esaldiak" osa daitezke. Baina komunikatzaile trebeak hitzak elkartu baino gehiago egiten du. *Literatura* egiten saiatzen da: olerkiak, entsaioa, narratiba, edo eta sloganak. Kasu bakoitzean, hitzak konbinatzeko modu desberdina erabiliko du, erritmoa eta tonua aldatuz. Hortxe dago literaturaren ikutu magikoa. Hiztegian datozen hitzak mugatuak dira, baina testuaren grazia hauek konbinatzeko moduan datza.

Diseinuan, beraz, elementu grafikoen konposizioa ikus lengoiaren *sintaxia* da. Sintaxia: osotasunari zentzia ematen dioten egitura-erlazioak. Hemen dator konposizioaren zailtasuna, egileak erlazioak "ikusteko" sentiberatasuna garatu behar duelako. Konposizioak, informazio denotatiborik gehitzen ez badio ere, obraren nortasuna zeharo markatzen du. Mezuaren alde konnotatiboa, neurri handi batean, konposizioaren esku geratzen da.

Gure ustez, diseinuaren gakoa konposizioan datza: elementuak elkarren artean nola konbinatu, bai eta espazio hutsarekiko ere.

“Matematika erraza da; diseinua, berriz, gauza zaila.”⁷

Jeffrey Veen

Konposizioak ez du berez informaziorik gehitzen, baina mezuaren tonu eta zentzia erroitik alda diezaioke. Diseinatze prozesuaren parterik esanguratsuena konposizioan aurkitzen da.

03.1 ARDATZ NAGUSIAK


Konposizioak elementuen arteko erlazio armonikoa bilatzen du. Baita elementu eta espazio hutsaren artean ere. Armonia koherentzia formalaren ondorioa da, nahita egindako ordenaketaren ondorio. Elementu oro konposizio-eskema bakar baten inguruan antolatzen direnean, armonia azaleratzen da.

⁷ Aipuaren iturria: buró.creativo.com

Konbinaketa franko dago, baina oinarrizko ordenatze-eskemak bi dira: geometrikoa eta Herenen Legea⁸.

- Egitura geometrikoa

Ardatz hauek objetiboki topa daitezke, planoaren puntu geometrikoak marren bidez elkartuz. Indar handiko egitura konpositiboak dira, klasikoak, irmo samar geratzeko arriskua dutelarik.




> **Eskema geometrikoa.** *Harley Davidson, Champion eta Kenwood* marken logoak. Simetria ardatzak egitura sendotu egiten du. Logotipo trinkoak dira.

Eskema honi jarraituz sortutako konposizioak simetrikoak dira. Simetriak ordena zorrotza ezartzen du, indar handiz. Kuestionamendurik gabeko mezuak iragarri nahi dugunean oso egoki suertatzen zaigu. "Egi absolutoaren" jabe garela dirudi, zalantza-erantzako tartea deuseztuz.

- Herenen Legea

Kasu honetan, koadroa hiru zatitan banatuz gero, azaltzen diren ardatzak optikoki armoniotsu suertatzen zaizkigu. Zine enkoadraketaren funtsezko eskema suposatzen du. Argazkigintzan ere bai. Arestiko egitura geometrikoa baino malguagoa da, baina tentsio dinamiko gehiagorekin.



> **Herenetan banatutako egitura.** *Nike, Solac eta Nestea* marken logoak. Ardatzaren dekalajeak higidura gehitzen dio.

Kasu honetan, mezuak ez zaizkio ikusleari hain modu gogorran aurkezten. Konposizio lagungarriagoa suertatzen da, ez baitzaio inolako "Egi" borobilik inposatzen. Ikuslearen interpretazioari espazioa eskaintzen zaio, eta mezua *inposatu* baino *proposatu* egiten zaio.

03.3 JARRERA KONTUA

Elementuen ordenaketak badu bere "esanahia". Komunikatu nahi dugunaren arabera, intentzio desberdineko joera hartuko dugu. Funtsean, eta halako dikotomia muturtua eginez, joera klasikoa eta joera espresionista daukagu. Mutur bi hauen artean sortzen den tentsioak gure diseinua gobernatuko du:

⁸ [Herenen Legeari](#) buruzko info gehiago.

Klasizismoa	Espresionismoa
Berpizkundera	Barrokoa
Perfekzioa	Zalantza
Simetria	Exzentrizitatea
Oreka	Desoreka
Batasuna	Zatikaketa
Egonkortasuna	Higidura
Betirakotasuna	Instantea
Neurria	Exagerazioa
Osotasuna	Detalea
Arrazionaltasuna	Pasioa
Idealizazioa	Errealismoa
Izpiritua	Gorputza
Zerua	Inperua
(...)	(...)

Honen bitartez, kanpainiaren norabide estrategikoaren azterketa egiteko aprobeitza dezakegu. Kanpainiaren ildo estrategikoa arestiko kontzeptuekin alderatu dezakegu, proposamenaren pertsonalitatea hobeki ezagutzeko. Behin jakinda zeintzuk diren hurbilenak, konposiziorako erabakiak hartzea errazago egingo zaigu. Arestiko kontzeptuen errepresentazioaren bidez, kanpainiaren jarrera zehaztuko dugu, berez dakarren alde informatiboa aberastuz.

03. 4 NEUTRALITASUNA / TENTSIOA

Diseinatzaileak, joku formalaren bitartez, mezuaren eraginkortasuna sendotu behar du. Mezuaren balioa aberasten duten erabaki konpositiboak hartu beharko ditu. Azkenean, mezu hori, diseinatutako piezan, SMS arrunt batean irakurrita baino interesgarriagoa suertatu behar da. *Interesa* gehitu behar diogu.

Publizitatean, originaltasuna balore bat da. Marka guztiek original agertzeko obsesioa dute, besteengandik aldentzeko obsesioa. Horregatik, guk egindako konposizioek *intentzio* jakin bat erakutsi behar dute; neutraltasunetik ihes egin behar dute.

Beno, bada elementuak ordenatzeko modu "logiko" eta esperogarria. Baina ez dator publizitatearekin bat. Neutraltasunak erizpide objektiboak segitzen ditu, erizpide zerebralak, legeen jarraitzaileak. Horrela, oso konposizio "zuzenak" lor daitezke, baina inoren atentzioa jasotzen ez dutenak. Diseinu txukunak izango dira, baita dotoreak ere, baina balore emozional altuko osagai bat faltan izango dute: espresio originala.



> *Levadura Royal*, packaging.

Zuzentasun klasikoaren arau guztiak gordetzen ditu: izenburua, goiko partean; irudia, bere osotasunean; simetria bertikala; konposizio ordenatua, armonikoa eta barea. Hau da, erabat esperogarria den konposizioa.

Trukean, proposamenaren formiltasunak tradizioa, baretasuna eta konfidantza iradokitzen du.

Egilearen "intentzioaz" ari garenean, arauetatik desbideratzeaz ari gara. Esperogarriak diren gauzak aldatzean datza, elementuen antolaketa sorprendentea aurkeztuz. Azken finean, araututako eremuetatik originaltasunera joatea. Honela, konposizioan aurkituko ditugun "ezustek" piezaren interesa areagotuko dute. Elementuen antolatze eta elkartzeko ezohikoari "tentsioa" deituko diogu.

Tentsioak diseinuaren interesa areagotzen du. Begia erakartzeko poterea dauka. Tentsioak diseinuaren magia gordetzen du. Bila dezagun, bada.



> **Julian Stone**. *Design Culture Now*. 2009.

Ondoko kasu honetan, berriz, konposizioak tentsio handia sortzen du. Dinamikoa da. Egilearen erabaki subjektiboak nabariak dira. Ordenaketa arautuaren gainetik, arbitrarietatea da nagusi.

Honek originaltasun handiagoa dakar.

Hala ere, araututako bideetatik kanpo ibiltzeko, diseinatzaileak sentiberatasun handiago izan behar du. Ibilbide zailagoa da.

03.5 "DIPOLOAK"

Donis A. Dondis izeneko autoreak, *Sintaxis de la imagen* liburuan, konposatzeko estrategia sorta bat erakusten digu. Estrategia hauek "dipolotan" sailkatzen ditu, aurkako bikoteak osatuz. Hona hemen berak seinalatutako adibide batzuk:



Oreka: > **Atelier Populaire**. *La chienlit c'est lui*. 1968.

Ezegonkortasuna: > **Stenberg anaia**. *Gizona argazki-kamararekin*. 1929.



Batasuna: > **Arturo Vega**. *RAMONES*, logo. 1975.

Zatiketa: > **David Carson**. *Just Bounce It*, Nikerentzako iragarkia. 1994.

Zerrenda osoak 19 dipolo desberdin biltzen ditu:

Oreka/ Desegonkortasuna

Simetria/ Asimetria

Erregularitasuna/ Irregularitasuna

Soiltasuna/ Konplexutasuna

Batasuna/ Zatiketa

Urritasuna/ Oparotasuna

Errezeloa/ Gehiegikeria

Esperogarritasuna/ Espontaneitatea

Ekintza/ Pasibotasuna

Sotiltasuna/ Ausardia

Neutraltasuna/ Azentua

Gardentasuna/ Opakutasuna

Koherentzia/ Aldakortasuna

Errealismoa/ Distortsioa

Laua/ Sakona

Singulartasuna/ Lerrokatzea
Sekuentzialtasuna/ Ausazkotasuna
Zorroztasuna/ Lausotasuna
Jarraitasuna/ Alez-alekotasuna

Beraz, konposizioak elementuak ordenatzen ditu, baina intentzio jakin baten arabera. Ordenaketa bera esanguratsua denez, mezuaren mamiarekin bat etorri behar du. Formak eta edukiak bat egin beharko lukete.

Gainontzekotan, komunikazioa ahalik eta modurik eragingarrienean gerta dadin ahaleginduko gara: diseinuak atentzioa eman dezala; mezua indarrez igorri dezala eta ikusleen gogoan erraz gera dadila.